



Oihana ikastolako barne-araudia

2023-2024

telefonoa : 05 59 55 41 72

bulegoaikastola@gmail.com (administrazioa)

ikastola.oihana@gmail.com (pedagogia taldea)

0651743452 (hartzaindegia)

<https://oihana-ikastola.eus/>

Barne araudia, elkarbizitzarako beharrezkoa den dokumentu egituratzailea da. Pertsona ororen errespetua zaintzea bermatzen du, bakoitzaren loratzea errazten du, eta lanerako giro egokiaren mantentzea segurtatzen du. Araudi honek engaiatzen zaitu, baita zure haurra(k) ere. Araudi honen onespenuak, Oihana Ikastolan ikasle ororen izen ematea eta bertan atxikitzea baldintzatzen ditu.



ELKARTE BIZITZA

IKASTOLA EGUNERO

- I. ORDUTEGIA**
- II. HAURTZAINDEGIKO ETA ESTUDIOKO TENOREAK**
- III. GOIZEKO ETA ARRATSALDEKO ASKARIAK**
- IV. ERRESPETUA**
- V. KOMUNIKAZIOA**
- VI. JANTEGIA**
- VII. GURASOAK & PEDAGOGIA PROIEKTUA**
- VIII. IKASTEKO BALDINTZA EGOKIAK**
- IX. HOR IZATEAK, HUTS EGITEAK, BERANTAK**
- X. OSASUNA ETA SEGURTASUNA**
- XI. URTEBETETZEAK**

EUSKARA : IKASTOLAREN FUNTSA

Zure haurra Oihana ikastolan emanez, euskara hautatu duzu harentzat, irakaskuntza eta komunikazio hizkuntza gisa. Ondorioz, funtsezkoa da hurrekin, talde profesionalarekin eta gurasoen artean euskaraz mintzatzea, bakoitzaren gaitasunaren arabera (ohiko praktika, ikasketa edo zenbait hitzen erabilpena). Guraso erdaldunei dagokienez, ahal oroz ikaste prozesuan sartzea garrantzitsua da. Ikus ikastolako hizkuntza politika zehazten duen Euskaraz Bizi Hitzarmena.

ELKARTE BIZITZA: Elkarteko kideak gurasoak gara.

Egitura:

- **Administrazio kontseilua eta bulegoa:** Zuzendaria, irakasleen ordezkaria, eta gurasoek osatzen dute. Ikastolako langileen, aurrekonduaren, kanpo harremanen, Biltzar Nagusiaren eramatearen... arduradun da.

- **Ikastolako Biltzar Nagusia eta Ikastolen kontseilua:** Erabakitzeko bi instantzia horiek, bata barnekoa bestea SEASKA federaziokoa, gure elkartearen gune « politikoak » dira. Hor dira eztabaidatzen, bozkatzeko eta erabakitzen gure ikastolarentzat eta Seaskaren norabide orokorarentzat garrantzitsuak diren gai guztiak. BNan familia bakoitzak bozka bat du.

Gurasoen administrazio betebeharrak :

Paperak Gurasoek paper administratiboak (Baionako egoitza agiria eta CAFeko QF agiria) sartzean ekarri behar dituzte. Baionatik kanpo bizi diren gurasoek dagokien herriko etxeari forfetaren eskaera gutuna helaraziko diote. Osasunari doakion atala zehazki bete behar da (eritasun kronikoak, alergiak, txertoen agiria). Irudi eskubideak izenpetu behar dira eta haurtzaindegiko asistentzia ere bai.

Ordainketak Kotizazioak: familia koziantearen eta haur kopuruaren arabera finkatzen dira eta diru hartze automatikoaren bidez pagatu behar da. Euroz edo euskoz egin daiteke. Haurtzaindegia: Ordainduz, 7:30etatik 8:20etara/17:00etatik 18:30etara (ostiraletan 18:00etara) .

Derrigorrezko parte hartzeak:

- Familia bakoitzak
- Ikastolako batzorde batean parte hartu behar du.
 - Ikastolen egutegiak eta Herri Urratseko txartelak saldu behar ditu, dirua aitzinetik hartua da.
 - Herri Urratsen lan txanda bete behar du.
 - Baionako bestetan bi lan txanda bete behar ditu.
 - BILeko lan txandetan, parte hartu behar du. (urtean lan txanda bat derrigorrez)
 - Garbiketan parte hartu behar du, hiruhilekoan bizpahiru aldiz ostiralez. Txandak aitzinetik AKk finkatzen ditu.

IKASTOLA EGUNERO

Ikastolan sartzeko onarpen baldintzak:

- Haurrak sartzeko egunean 2 urte eta erdi beteak ditu eta garbia da.
- 4 urtetik goiti, onarpena euskara mailak baldintzatuko du (pedagogia taldeak ebaluatua).

I. ORDUTEGIA

ASTELEHENA	ASTEARTEA	OSTEGUNA	OSTIRALA
8:30	8:30	8:30	8:30
12:00*	12:00*	12:00*	12:00*
EGUERDIKO PAUSA TENOREA		EGUERDIKO PAUSA TENOREA	
14:00	14:00	14:00	14:00
16:30	16:30	16:30	16:30

* Ama eskolako haurrek lehenago jaten dute.

II HAURTZAINDEGIKO ETA ESTUDIOKO TENOREAK

Haurtzaindegia : 7:30-8:20 eta 16:30-18:30 (18:00etan ostiraletan).

- Haur hezkuntza: gurasoek kanpoko eremuan haurrak uzten edota eskuratzen dituzte (motrizitate gelan egun euritsuetan). 8:00ak arte, haurtzaindegian utzi behar dira haurrak, Lehen Mailako xeilatik pasatuz. Eta berdin 17:00etatik goiti.

- Lehen maila: Haurtzaindegi orduetan, gurasoak ikastolan sartzen ahal dira. Ordu horietatik kanpo, hala nola 8:00-8:30 eta 16:30-17:00, gurasoek xeilan itxaron behar dute.

Estudioa : Ostegunetan 16:45tik 17:30etara

4. eta 5. urteko haurrek estudioa dute 16:45etatik 17:30etara. (Gurasoek lotura liburuxkan hitz bat ematen badute salbu). 3. urtekoentzat hautuzkoa da.

Gurasoek, estudioa ez tratatzeko, haurrak 17:30etan errekuperatu behar dituzte.

III. GOIZEKO ETA ARRATSALDEKO ASKARIAK

Goizetako eta arratsaldetako askariak ikastolak banatzen ditu. Haurtzaindegian diren haurrei ere, ikastolak die askaria proposatzen.

Beraz, haurrek ez dute kanpotik inolako jatekorik ekarri behar.

IV. ERRESPETUA

Jendeen artean

Ikasleek, hezitzaile taldeak eta familiak elkarri errespetua erakutsi behar diote, baita auzokoei ere. Ikastolan, eragile guzien artean jendetasunez solastatzea beharrezkoa da. Ikastola barneko gatazka edo gertakari ororen konpontzea, Hezkuntza taldearen (langile eta irakasleen) esku dago. Gurasoek ezin diote ikastolako haur bati, inolaz ere, kargu hartu.

Ingurumena

Ingurumena errespetatu behar da. Denon ardura da kanpoko eremuaren garbitasuna.

Birziklapena egin behar da.

Materiala

Tokiak, eskolako materiala eta liburuak errespetatu behar dira. Andeatze kasuan, gurasoei hondatua den materiala ordaintzea eskatuko zaie.

Ikastolara telefonoak, jostailuak, goxokiak, xingomak, irudiak edo kartak ekartzea debekatua da. Baita baloiak, pilotak ere. Bitxiak ekartzea ez da gomendatua, galtze kasuetan ez da ikastolaren ardura.

V. KOMUNIKAZIOA

Lotura liburuxka:

Lotura liburuxka irakasleen eta familien arteko eguneroko lotura da. Irakaslearekin ezin da telefonoz harreman zuzenean sartu. Irakaslearekin hitz-ordu bat galdegiteko lotura liburuxka baliatu behar da. Gurasoek egunero begiratu behar dute eta korrespondentziak izenpetu. Lotura liburuxkak, beti, haurraren zakuan egon behar du.

Whatsapp taldeak:

Gela bakoitzak bere Whatsapp taldea du. Talde hori gelako erreferenteak du kudeatzen. Zuzendariak, irakasleak edota administrazio kontseiluak informazio bat helarazi nahi badute, erreferentearen bidez egingen dute. Irakasleak ez dira geletako whatsapp taldeetan. Whatsappa ikastolako tresna izanki, familiek euskaraz idazteko indarra egin behar dute.

Imeilak:

Bulegoaren imeila: bulegoaikastola@gmail.com

Pedagogia taldearen imeila: ikastola.oihana@gmail.com

Datu pertsonalen kudeaketa:

Bulegoak eta batzorde ezberdinek familien datu pertsonalak eskuratzen dituzte. Hauek ikastolako jarduerari loturik bakarrik balia ditzakete eta ezin dituzte, inolaz ere, zabaldu. Ref legea: *loi informatique et libertés 78-17 du 6 janvier 1978*.

VI. JANTEGIA

Herriko etxeak du jantegia kudeatzen, ondorioz, gurasoek haurraren izena Herriko etxean eman behar dute. Tarifak, ordainketa... Herriko etxearekin egiten dira zuzenean. Telf: 0559466032

Ohartarazten dizuegu bazkarien kondaketa ikastolan 8:30etan egiten dela.

Jantegian bazkaltzen ez duen haurraren gurasoak berantean badira, haurra jantegira eramana izanen da eta bertan egonen da gurasoen beha.

VII. GURASOAK & PEDAGOGIA PROIEKTUA

Euskara, gure proiektu pedagogikoaren oinarria baita, ateraldietako guraso-laguntzaileak, euskaradunak izanen dira. Ikastolako langile guziek ere euskaldunak izan behar dute.

Haur baten laguntzailea (AESH) ez baldin bada hor, gurasoek ezin dute pertsona hori gelan ordezkatu.

VIII. IKASTEKO BALDINTZA EGOKIAK

Gurasoen ardura da:

- Haurrak ikastolara tenorez heltzea.
- Lehen hezkuntzatik goiti, haurrak etxerako lana eginik eta ikasgaiak ikasirik etortzea.
- Egoera onean den lanerako materialarekin etortzea, baita liburu eta kaierekin ere.
- Kirol edo igerileku egunean: jantzi eta oinetako egokiekin etortzea.
- Kantinarako esku oihal bat ekartzea, haurraren izenarekin.

IX. HOR IZATEAK, HUTS EGITEAK, BERANTAK

Ikastolako haurren huts egiteak, berantak:

Eskolara etortzea derrigorrezkoa da Oihana ikastolan izena emana duen haur ororentzat. Huts egitea telefonoz edo imeilez seinalatua izan behar da 8:30etarako berantenez.

Eskola ateraldiak eta bidaiak eskolako pedagogia egitasmoen barne dira. Beraz, ikasle guziek horietan parte hartu behar dute. Kirol eta igerileku jardueretan ere parte hartzea derrigorrezkoa da, mediku agiri batek kontrakoa erraten ez badu.

Klasea huts egin duen haurrak ikastolara itzultzean hitz bat ekarri behar du. 3. huts egunetik landa, mediku agiria behar da. Eskolak justifikatu gabeko huts egite luzeak ikuskaritzari seinalatu behar dizkio.

Familien huts egite eta berantak:

Hurtzaindegia: 3 berantaren ondotik, familiak 20 euroko isuna jasoko du (zuzenean diru ateratzea eginen zaio), eta ondotik, berantek jarraitzen badute, bakoitzean isuna 10 euroz emendatzen joanen da.

Herri Urrats eta Baionako bestak : familiek lan txandak huts egiten badituzte, 200 eurotako isuna ukan dezakete.

Borondatezko huts egiteak :

Borondatezko huts egiteentzat, gurasoek haurraren irakaslea lehenbailehen jakinean eman behar dute idatziz, datarekin eta izenpeturik.

Gurasoak dira huts egindako lanaren errekuperatzeko arduradun bakarrak. Zuzendariak bere desadostasuna idatziz jakinaraziko die, ardura guzia bere gainetik kentzeko.

X. OSASUNA ETA SEGURTASUNA

Osasuna:

- Eri den haurrak etxean egon behar du.
- Eskolan ezin zaizkio haurrari erremedioak eman (PAI protokoloarekin salbu).
- Eritasun kutsakor oro berehala irakasleari seinalatu behar zaio.
- Familien ardura da haurren zorrien prebentzioa eta tratamendua bermatzea. (ikus protokoloa)

Segurtasuna:

Haurrak gurasoen ardurapean dira, eskolako langile baten gain utzi arte.

Haurra hartzen duen guraso bakoitzak ikastolako langilea abisatu behar du.

Haurren segurtasuna bermatzeko, ikastolako ateka:

Hetsia izanen da 8:30etatik 16:30ak arte

Idekia izanen da 7:30etatik 8:30etara eta 16:30etatik 18:30etara (ostirala salbu 18:00)

XI. URTEBETETZEAK

Ikastolan: Haur bakoitzak bere urtebetetzea gelan ospa dezake. Egun horretan, familiak du bixkotxa prestatzen eta ikastolarat ekartzen. Goxokiak eta edariak, aldiz, ez dira baimenduak.

Etxean: Gomitak ikastolan bertan banatuak izaten ahal dira. Horretarako 2 baldintza errespetatu behar dira:

- Euskaraz idatziak izatea.
- Gelako haur guziak, hots, gela osoa, gomitatua izatea.

BARNE ARAUDIA 2023-2024



Dokumentu honek 2023-2024 urtearentzat balio du eta izenpetu behar duzu.
Barneko araudiari buruz izaten ahal diren proposamenak bulegoari helarazi behar dira,
eta bulegoak ditu proposamenak aztertuko.

Dokumentu hau izenpetuz errespetatuko duzula segurtatzen duzu.

HAURR(AR)EN DEITURA eta IZENA (k) :

GURASO EDOTA ARDURADUN LEGALAREN DEITURA eta IZENA:

DATA :

IZENPEDURA :